

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA  
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika

# ETXETIK PLAZARA

## MUGAREN ORDAINAK

**SARIA:**  
ELGORRIAGAKO  
bainuetxean bi  
lagunentzako  
zirkuitua  
eta otordua

2022ko EKAINA

178. ALEA

# IZENAK IZAN

## DANI IRAZOKI

Larungo Kaiolan aske. Halaxe ibiltzen da Dani Irazoki beratarra mendi nabarmen horretako benttan. Berez mendi bortitza eta basatia dena, nola goxatzen ahal den ongi daki gure gaurko pertsonaiak. Zer kontatzen digun jakin nahi? Hona hemen Etxetik Plazara aldizkarirako eskusiboki egindako elkarrizketa. Gozatu!



### 1. Nola azalduko zenioke zer den benta bat ideiarik ere ez duen norbaiti?

Sinpleki erranda, munduko edozein mugatan gertatzen den bezala, bi estaturen diferentzia ekonomikoan oinarritutako negozioa dela. Ostatu, denda... Edozein gauza topa dezakezu bertan. "Badulake" gisako bat.

### 2. Gaur egun, bentetara joaten direnek zer bilatzen dute?

Ba, non begiratzen duzun... Gure kasuan, Larunen egonda, mendizaletasun eta turismoarekin zerikusi handiagoa duen zerbait. Paisaia eta egun polit bat pasatzearen bizi-poza, agian! Harat jendea ez da erosketak egitera etortzen, gehienak trenez goitzen dira eta ez da praktikoa beraiantzat.

### 3. Zer lotura dute bentek mugarekin? Eta kontrabandoarekin?

Benttak ez lirateke bentta izanen mugarik gabe. Kontrabandoa? Je ne sais pas! Je, je...

### 4. Zein da zuen bentaren historia (Larungo Kaiola)?

Feliziano Irazoki Maritx nire ataxik sortutako toki eder hau da gure bentta. Erremonte jokalaria zen eta 40 urte betetze aldera, jubilaziorako lana bilaka edo...

14 urterekin hasi zen nire atta, Peio, berarekin lanean goitian. Arantzatik etorritako Margaita Otxunkua agertu zenean hasten naiz ni kontatzen... Ez ginateke hemen egonen nire bi arrebak (Esther eta Maddi) , ni eta ondotik etorritako jendeak beraiek gabe, bizia zor diegu!

### 5. Eta gaur egun, zer egiten duzue bertan?

Ba, segur aski, aunitzetan astakeria den zerbait: kultura aldetik tiratzen saiatzea. Orain dela urte batzuk denda kentzea erabaki genuen Itziar Eliasek (nire bikoteak) eta nik, eta erakusketa gela batekin espazioa berrokupatzea.

Mugako bi aldeetako artisten lanak erakustea da ideia. Muga ez dadila izan bi aldeak banatzen dituen marra bat, hurbiltzen dituen toki hori baizik. Nahiz eta mundua dagoen bezala egonda, maizegi zenbat arazo dituzten batzuek bertze aldera pasatzeko...



## **6. Zer plan ditu Larungo Kaiolak etorkizunera begira?**

Etorkizunari begira, kulturaren aldeko apustu hau laketzen ikusi nahiko genuke. Egonaldi artistikoak egiten hasi gara, eta gustatuko litzaiguke hemen goian sortzen diren proiektuek ondorio bat izatea Larungo magaletan... urak egiten duen bezala, jaitsiz. Beraz, taberna izateaz aparte, sormen-gune bat izatea, aterpe bat, inguruko edo kanpoko sortzaileentzat.

## **7. Hamaika istorio izanen dituzue Larungo gain horretan. Baten bat kontatzerik bai?**

Egia erran, kostatzen zait zer erran erabakitzea. Mugan gelditu behar luketen kontuak baititu mugak. Hainbertze urteren ondoren, istorio ttiki eta pertsonal aunitz bizitu izan ditugu kaxko honetan... pentsa, nire ama goian zegoela hasi zen erditzen eta Renault 5 batean jaitsi behar izan zuten attak eta berak Donostiaraino, ni orain hau zuri kontatzen egoteko.

Horregatik, gurekin bakarrik zerikusia duen zerbait kontatu beharrean, mugarekin berarekin eta "historiarekin" zerikusia duen zerbait aukeratuko dut... Bon, harira:

Bi estaturen arteko muga Baionako Itunak definitzen du XIX. mendiaren erdi-alde ezkerotik. Larungo kaxko eta inguruko kasu konkretuan, 1859. urteko V. anexoa da nagusi. 1919. urte inguruan eta 1978. urteetan gertatutako kontu batzuegatik, Frantzia-aldeko kaxkoa pribatua izatera pasa zen, horrek suposatzen duen guztiarekin. Itun horren interpretazio oker baten ondorioz, muga ez zen ongi irakurria izan, eta kaxkoaren gehiena bertze aldean geratu zen. Orain dela 10 bat urte arte.

Egun batean, ohartarazi ninduten, agian, kontuak ez zirela guztiz horrela, eta arazo bat egon zitekeela muga ulertzeko moduan. Izan ere, bi estatuek elkarri gain hartzen zioten kaskoan bertan, eta "marra" hori ez zegoen batera garbi. Teknologiak hanpatua dagoen XXI. mende honetan, hori horrela zegoela ulertzea zaila bada ere, horrela zegoen afera. Hortaz, Berako udalarekin solastatu ondoren, Mugen Komisia deitzen dena martxan jartzea eskatu genuen denon artean, gauzak garbi geldi zitezten hainbertze jende biltzen duen leku honetan.

10 urte inguru pasa behar izan ziren burokraziak gauzak bere tokian uzteko. Presio eta jokaera itsusiz betetako 10 urte, jasaten jakin behar diren horietakoak. Detaileak ez ditut hemen emanen. Gaur den egunean, atzera begira, kontuak merezi izan zuen.

Baten bat ez da ados egonen erran behar dudan honekin, baina, niretzat, pertsonalki, Berako herriak egun horretan Larungo kaxkoaren zati koxkor bat berreskuratu zuela pentsatzeak irribarre polit bat loratzen dit.



# LAN eta LAN

Daniren elkarrizketak mamia duela eta egitura aberatsak erabili dituela ikusita, hain gustuko ditugun berridazketak egiteko aprobetxatuko dugu aukera. Batzuk aisak dira, baina, beharbada, bertze batzuk egiteko, pixka bat astindu beharko duzue burua. Zorte on!

1. Benttak ez lirateke bentta izanen mugarik gabe.

..... **ezean**, .....

2. Muga ez dadila izan bi aldeak banatzen dituen marra bat, hurbiltzen dituen toki hori baizik.

....., **baizik eta** .....

3. Taberna izateaz aparte, sormen-gune bat izatea, aterpe bat.

..... **gain**, .....

4. Mugan gelditu behar luketen kontuak baititu mugak.

**Izan ere**, .....

5. Nire ama goian zegoela hasi zen erditzen

..... **ekin** .....**ari**.

6. Interpretazio oker baten ondorioz, Frantzia-aldeko kaxkoa pribatua izatera pasa zen.

.....**-ela eta**, .....

7. Egun batean, ohartarazi ninduten arazo bat egon zitekeela muga ulertzeko moduan.

..... **ahal** .....

8. Hori horrela zegoela ulertzea zaila bada ere, horrela zegoen aferan.

..... **-agatik ere**, .....

9. Berako udalarekin solastatu ondoren, Mugen Komisia martxan jartzea eskatu genuen.

**Behin** ..... **-ta**, .....

10. Larungo kaxkoaren zati bat berreskuratu zela pentsatzeak irribarre polit bat loratzen dit.

..... **larik**, .....

..... **zait**.



# BITXILOREAK

## BENTTAK

Elkarrizketan ikusi dugunez, gure eskualdean benttek izugarrizko garrantzia izan dute eta gaur egun ere badute. Ondorengo testuan, bentek kontrabandoarekin duten lotura ikusiko dugu. Hitz batzuk aukeratu ditugu eta behean horien sinonimoak paratu ditugu. Pareka itzazu.

**ERNE, SARIRAKO!**

Bentten sorrera eta historia muga eta kontrabandoarekin lotuta doazela (1) **azpimarratu** behar dugu. Nafarroak dituen mugei erreparatuz gero, ohartzen gara zenbat mugakide ditugun: hegoaldean Errioxa, ekialdean Huesca, (2) **mendebaldean** Araba eta Gipuzkoa eta iparraldean Lapurdi, Nafarroa Behera, Zuberoa eta Biarno (guztira 730 kilometroko muga). Historian zehar mugek (3) **berebiziko** garrantzia izan dute bi aldeetan bizi diren herritarrentzat. Horien bidez, botereak merkataritza, jendearen joan-etorriak eta ideiak mugatu eta kontrolatu nahi izaten ditu. Helburu hori lortzeko, zergak eta ordainsariak (4) **ezartzen** dira. (5) **Oztopo** politiko horri aurre egiteko, biztanle arruntek trikimailuak bilatu behar izan dituzte aduanak eta ordaindu beharrekoak (6) **saihesteko** eta merkataritza, pertsonak zein ideiak mugiarazteko.

Testuinguru horretan, mugek eta kontrabandoak lotura estua izan dute. Historian zehar guda nazionalak edo nazioarteko gatazkek ezarritako marra horiek mugiarazten ziren eta, ondorioz, bertako biztanleen bizitza zaildu eta gehienetan pobretu egiten zen. Euskal Herria behin betiko zatitu zuen muga 1856. urtean jarri zen. Urte horretan nondik norainoko marra egin behar izan zen, baina ez zen (7) **erabat** zehaztu, lanak bukatu gabe gelditu baitziren. Dena den, Gipuzkoa eta Nafarroako mugak urte horretan erabaki ziren, horrela Bidasoa ibaiarekin izandako (8) **liskarrak** (9) **baretu** ziren.

Muga nondik nora zihoan markatzeko, mugarriak edo harri koxkorrak paratu ziren (bertan (10) **diraute** gaur egun). Guztira 272 mugarri daude. Bereizketa zehatza, marra politikoa baina bertakoentzat logikarik gabekoa. Horren ondorioz, muga gainditzea eta merkantziak pasatzea dirua irabazteko modu bilakatu zen. Mugarri horien ondoan eta inguruan bordak eraiki ziren, edo zeudenak kontrabandoa gordetzeko apaindu ziren. Eraikuntza horiek XX. mendean bentta bihurtu ziren: legezko ostatu eta denda: edaria, janaria, arropa, bitxiak, tabakoa saltzen zen bertze aldera pasatzeko. Horretaz gain, kontrabandorako gune inportanteak izan ziren (leku paregabeak biltegi eta merkataritza paraleloa egiteko). Batzuek (11) **antzinatik** zuten kontrabandorako joera, horrengatik, negozio goraldia erraztasuna izan zuten.

Ibardin, Larun, Dantxarinea, Lizuniaga, Lizarrieta, Luzaide... Zenbat bentta, hainbat (12) **istorio**; gure historiaren zatitxoa mugarrietan idatzita.

## SINONIMOAK

a. irauten dute  
b. aspalditik  
c. kasailak  
d. arrunt, guztiz

e. sartalde  
f. nabarmendu  
g. lasaitu  
h. izugarrizko

i. Traba  
j. pasadizo, kontu  
k. jartzen  
l. ekiditeko



# KANTU KANTARI



Bentak, muga eta kontrabandoa; eskutik hartuta doazen hiru lagun banaezin. Horri buruz ari da, preseski, Edu Zelaietaren *Baigorritik Erratzurat* olerkia. Hori dela eta, aldizkarira ekarri dizuegu aipatutako poema, baina hitz batzuk kendu dizkiogu. Ea beren lekuan kokatzeko gai zaren. A! Mugaldekoak taldeak paratu zion musika olerkiari; beraz, aditu nahi baduzu, hementxe duzu esteka:

<https://mugaldekoak.bandcamp.com/track/baigorritik-erratzurat>

a. izerdi  
b. gorrian

c. artean  
d. ozenki

e. migrazio  
f. laboraria

g. baizik ez  
h. bizkar-lan

i. soinean  
j. itsasarterik

## BAIGORRITIK ERRATZURAT

Baigorritik Erratzurat, Aldudetik Elizondorat  
joaten zen Baztango .....(1).....  
isilpean, gordeka, .....(2)..... betean:  
hogeita hamar kilo kobre .....(3).....

Baigorritik Erratzurat  
Ibai Handirik ez, .....(4)..... ez.  
Oinezko bide malkartsua baizik ez:  
.....(5)..... eta nerbio bidaideturik  
negu .....(6)..... nahiz udazken orbelduan.

«Mugarik ezean, kontrabandorik ez»  
pentsatzen zuen nekazariak bere .....(7).....  
etxera bidean, egunabarrean.

«Duty free ez zen guretzat existitzen»  
pentsatzen du .....(8)..... aitona zaharrak ferryan,  
«.....(9)..... -poliziarik;  
jendarmeak eta karabinero gizajoak .....(10).....».  
Tijuana, Tanger, Tarifa  
ez ziren  
Baigorritik Erratzurat.

# ERANTZUNAK

## LAN eta LAN (4. or.):

1. Mugarik egon ezean, berrak ez lirateke berrak izanen.; 2. ...., baizik eta hurbiltzen dituen toki hori.; 3. Taberna izateaz gain,.....; 4. Izan ere, mugan gelditu behar luketen kontuak ditu mugak.; 5. Nire ama goian zegoela ekin zion erditzeari.; 6. Interpretazio oker bat zela eta,.....; 7. Lagun on batek ohartarazi ninduen arazo bat egoten ahal zela muga ulertzeko moduan.; 8. Hori horrela zegoela ulertzea zaila izanagatik,.....; 9. Behin Berako udalarekin solastatuta,.....; 10. Larungo kaxkoaren zati bat berreskuratu zela pentsatzen dudarik, irribarre polit bat loratzen zait.

## KANTU KANTARI (6. or.):

1- f; 2- h; 3-i; 4- j; 5- a; 6- b; 7- c; 8- d; 9- e; 10- g

## 177. aleko sarirako ariketaren erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- a; 2- b; 3- a; 4- b; 5- c; 6- a; 7- c; 8- b; 9- b; 10- b; 11- a; 12- a

## ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, 5. orrialdeko erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

178. aleko SARIA:

**ELGORRIAGAKO** bainuetxean bi  
lagunentzako  
zirkuitua eta otordua

177. aleko irabazlea:

**Saioa Urrutia**  
Elizondokoa

**ETXETIK PLAZARA**  
liburua, **DEBALDE!!**  
Eska ezazu,  
Bortziriak edo Malerrekako  
IKA euskaltegietan



<http://etxetikplazara.ivoox.com>

OHARRA: erantzunak uztailaren 12a baino lehen bidal itzazu.



## **SARIRAKO ARIKETA**

**BITXILOREAK (5. or.):**

1 - _____	5 - _____	9 - _____
2 - _____	6 - _____	10 - _____
3 - _____	7 - _____	11 - _____
4 - _____	8 - _____	12 - _____

EP 178 (2022/06)



**ika**

euskara errazago egiten



# UDAN ere, EUSKARAren KILIKA!



## UDARAKO KIT-a!

UDA ETORRI ZAIGU, ZAUDEN TOKIAN ZAUELA ETA EGITEN DUZUNA EGINDA, URTARO POLIT HONETAN ERE ZAINDU ZURE EUSKARAREN OSASUNA. GOZATU, HONA HEMEN UDARAKO KIT-A!

1. Euskarazko liburu onak dastatu: hondartzan, igerilekuan, etxeko freskuran edota mendiko tontorretan. Aukera zabala aurkituko duzu bertako liburu-denda edota liburutegietan.
  2. Korrika egitean, uraren bazterretan lasai-lasai etzanda edo etxeko lanetan ari zarelarik euskarazko musika gustagarri eta dantzagarriaren erritmoan mugitu.
  3. Etxean, lanean edo beste jarduera batzuetan aritzean euskarazko irratia piztu itzazu, lagun on eta entretenigarriak izanen dituzu.
  4. Udako festetan parte hartu euskara ardatz duten ekitaldietan: bertsolariak, herri kirolak, musika emanaldiak...
  5. Neguan zehar euskara ikasten aritu baldin bazara, udan aprobetxatu "eguneroko txiki bat" idazteko eta horrela ikasitakoa erreparatuko duzu.
  6. Aperitiboa hartzean, berria egunkaria edota euskarazko aldizkariak irakurri, irakurketa horiek ikasitakoa finkatzen lagunduko dizute.
  7. Euskal Herrian barrena bidaiatuz gero, saiatu bertako euskalkiei erreparatzen eta bertakoekin elkarriketak izaten. Eman zuen euskalkien berri eta trukatu elkarrekin.
  8. Zuberoko pastorala ikusteko aukera izanez gero, aprobetxatu, Iparraldeko magian murgilduko zara.
  9. Kanpoko jatetxeetan otorduak eginez gero, erreparatu euskarazko menuen gastronomia dastatuz, euskara ere dastatuko duzu.
  10. Zentzumen guztiak prest eduki: belarriak, begiak, ahoa, eskuak, azala... euskaraz bizi, euskaraz gozatu, dastatu, musukatu, dantzatu... den-dena EUSKARAZ, UDAZKENEAN ZURE ERRUTINARA GUSTURAGO ITZULIKO ZARA.
- Udan ere izan ahobizi eta belarriprest. Udazkenean euskaltegiatako ateak zabalik topatuko dituzu eta prestatu Euskaraldirako!

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta  
Malerrekako IKA  
Euskaltegiak**

Marrazkiak:

**Joseba Larratxe**

Diseinua eta maketazioa:

**Raul Garcia Etxeberria  
Mathilde Brugiere-Garde**

Laguntzaileak:

**Nafarroako Mendialdeko  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEAK**



## ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....  
Helbidea:..... Herria:.....  
Telefonoa:..... Adina:.....

## HORRA GURE HELBIDEAK

Bortziritako IKA Euskaltegia.  
Arretxea 22, 31770 Lesaka.  
[bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus)

Malerrekako IKA Euskaltegia.  
Rosa seminario 6, behea, 31740 Doneztebe.  
[malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus)

